



BARREN  
TOKIKOM

# Industriaren erakusleiho





# Nora Kortaberria

eta

# Kristiña Fidalgo



**Duela lau urte proiektu txiki batekin hasi, eta aurten, jada, My Way Kooperatiba sortu dute Nora Kortaberria elgoibartarrak eta beste hiru lagunek.**

## □ Nora, nolatan hasi zineten honekin guztiarekin?

Era batera edo bestera gure ingurunea aldatzeko grina geneukan pertsonak elkartu ginela esan dezaket. Gu geu eraldaketa pertsonal bat bizitzen ari ginen, eta gazteei begiratura egunerokotasunean motibazio falta izugarria sumatzen genuen. Hori ikusita, harribitxi horiei distira ateratzeko, bidaia tresna bezala erabiltzea erabaki genuen, bakoitza bere egunerokotasunetik atera eta errealitate eta pertsona berriak ezagutzeko. Horri esker, bakoitzak bere burua eta ingurua gehiago baloratzea lortu dezakegu, eta ikusiarazi diezaiekegu esfortzu txikia eginda aldaketa handiak eragiteko gai direla gizarte honetan.

## □ Zertan zabilzate orain?

Gure misioa gazteak piztea da, eta esan bezala, ginkana eta erronketan oinarritutako bidaiak dira gure tresna. Alde batetik, ikas bidaiak antolatzen ditugu, eta bestetik, udarako esperientziak Europan zehar eta AEBetan. Horrez gain, gazteei hasieratik protagonismoa emateko, eta horren birtartez inizatiba eta ardura bultzatzeko, Zuk Zeuk Programa dugu martxan: gazteei bidaien finantziarioarekin laguntzen diegu, haien zaletasunekin zer ikusia duten proiektu ekintzaileak garatzen.

## □ Kristiña bi urtetan joan da zuekin. Kristiña, zuretzako zer izan da My Way?

Hasiera batean ez nuen My Way ulertzen, bidaia interesgarri batzuk zirela uste nuen, eta horregatik animatu nintzen Europako Interrailera. Dena dela, bidai hartatik itzultzean konturatu nintzen 15 egun eta gero nire burua eta ingurua beste begi batzuekin ikusteko gai nintzela. Mo-

txilero eran bidaiatzean, horrenbeste erronkei taldean aurre egitean... Benetako talde-lana eta elkarbizitza esperimentatzeko aukera izan nuela esan dezaket. Goizean, Berlinen, eta arratsaldean, Pragan egotea pasada bat da, bai, baina egia esan orain bidaia hartatik oroitzen dudana ez dira lekuak, baizik eta taldean bizi izan genituen anekdotak.

## □ Hasieran bidaiatzera zindoazela pentsatu eta azkenean beste gauza bat izan da hortaz? Jar dezakezu honen adibiderik?

Nire egunerokotasunetik, Mendarotik, irteteak nire ikuspegia aldatuarazi dit. Adibidez, Europako Legebiltzarrera egin genuen bisita horri esker, bertan lantzen dituzten dilemez ohartu nintzen eta Europan gertatzen ari denaz jabetu. Bestetik, ingelesari nion "izua" landu eta hostaletan jende guztiarekin hitz egiten amaitu nuen. Eta inoiz ahaztuko ez dudana Amsterdameko plazan izan genuen elkarrizketa hori izan zen. Borobil batean eseri eta elkarri gure barruko gauzak kontatu genizkion.

## □ Zer esango zenioke My Wayeko esperientzia batean izena emango lukeen horri?

Lotsak etxean uzteko eta norbera izateko, inongo beldurrik gabe. Ni lehenengo urtean bakarrik joan nintzen eta beldur pixkat banuen, baina jende ezezagunarekin aurreiritziak ahaztu eta uneoro ni neu izanda, lortu nuen azkenerako besteek nirekin ere horrela jokatzeara. Gainera, My Way taldekoek euretako beste bat gehiago izango banintz bezala hartu naute hasieratik. Sortzen ari diren inpaktu horren parte sentiarazi naute, eta hori oso berezia eta polita da.

“Ginkana eta erronketan oinarritutako bidaiak dira gure tresna”

## Ezagutu gure Ginkanak!



15 eguneko Interraila Europan zehar



AEBetan ingeles murgiltze-programa



T. +34 678 697 549

nora@feelmw.com

www.feelmw.com



Feel My Way



@feelmw





## IBON SERRANO LASA

Ingeniaria

## 'Nature'-k zuzenean aitortzen du beraz Elexpururen lana

Gaurkorako 'Nature Genetics' sonatuan berriki publikatu den artikulu baten iruzkina agindu nuen.

### - Achtung! "xafla" is coming!

Sardinia uhartean eginiko azterketa genetikoa berri dakar, 3.514 biztanleren ADN a ztertu ondoren.

Sardiniarrak, batik bat Barbariako menditarrak, nahiko isolaturik bizi izan dira azken 7.000 urteotan, beraz interesgarria ikerketa; medikuntzarako, diote.

### - Nora heldu dira?

Frogatu da barbariarren genoma endemikoa dela, eta, to! antzekotasun gehien euskal genomaz daukela.

### - Nola azaldu?

Egungo mendebaldeko europarren ADN a batik bat hiru antzinako jatorrien konbinazioa da % desberdinetan:

- Aurre neolitikoko ehiztari biltzalea. Duela 14.000 urtetako Ekaingo gazakia.

- Neolitikoko nekazari anatoliarra. Orain dela 7.000 urte mendebalderatu Egeo itsasotik.

- Estepetako artzaina. Itsaso Beltz iparraldeko indoeuroparren aitzindari. Europa guztira hedatu ziren uholde desberdinetan duela 4.000 urte inguru. Egun, europarren %94 indoeuroparrez mintzo dira.

### - Eta?

Ba konprobatu da barbariarren (eta euskotarren) genoma lehenengo bi fenotipoek osatua dela ia esklusiboki.

Honek lotura sortzen du bi herrion artean antzinako migrazio mediterraniarren bitartez. Halaber, euskaldunen



berezitasuna, soilik Ekaineko kobazulotik baino gehiago, Ekain-Egeo nahastetik datorren hipotesia indartzen du.

Are gehiago, artikulgileek diote ADN emaitzek balioztatzen dutela Cagliariako unibertsitateko Blasco akademiakoaren lan toponimikoa. Blascok, hil aurretik, protosardoa euskararekin lotu zuen.

Irakasle honen teoriak gure "achademia"ren orakuluengatik mesprezatuak izan ziren, baina Juan Martin Elexpuru filologoak, Blasco abiapuntu hartu eta ikerketa trinkoa egin zuen, *Euskararen aztarnak Sardinian?* liburuan argitaratu duela bi urte.

'Nature'-k zuzenean aitortzen du beraz Elexpururen lana. Ziurrenik Alemanian bagina *Wilhelm von Humboldt* saria jasoko lukeela, baina hemen BBVA ligaz arduratzen gara gehiago.

### - Zure sarkasmo ikutua ez dut lakhet.

Dena den, bejondeigula, Elexpuru izango baitugu otsailaren 27an, asteazkenean, 19:00etan, Kultur Etxean Iruñe-Veleia auziaz hitz egiten *Erroma Euskal Herrian* hitzaldien barne.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskal Lehendakariaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UDOLA  
KLUBAREN BARRA

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO  
2000



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► PASIARAN BAI, BAINA IKUSTEN DEN LEKUTIK

Gaur egun oso modan jarri da kirola egitea eta norbere gorputza zaindu asmoz ibiltzera joatea. Hori dena oso ondo iruditzen zait, beti ere ongi egiten denean. Gaur egun, jende asko ibiltzen da Aiastiako bidean pasiaran, baina batzuek ez dute arriskua ikusten. Bihurgune askoko bidea izanik, ezin da beti errepidearen alde beretik joan, bihurgune askotan ikusgarritasunik ez dagoelako. Kurba horietan kotxeak barrutik sartzen dira eta behin baino gehiagotan tokatu izan zaigu pasiaran datorrena alde horretatik etortzea. Arrisku hori asko handitzen da, gainera, eguna argitu aurretik etorri zera (bai, oraindik iluna dagoenean ere jendea ibiltzera joaten da). Mesedez, denon segurtasunagatik eta sustoren bat izan aurretik, kotxeak zu ikusteko moduko lekutik ibiltzea eskatzen dugu, eta gauzez pasiaran dabilenari, gutxienez, argia edo ikusgarria den jantziren bat soinean izatea.

**Amaia**

### ► IÑAKIK ZER GOMENDATUKO

AEK-k bi urtetik behin antolatzen duen Korrikak 21. edizioa izango du apirilean, eta aurten zine aholkulari eta aditu baten falta somatuko dugu, izan ere, ia edizio guztietan, Korrikaren inguruan propio horretarako egindako dokumentalak edo euskara ardatz duten filmak herrira ekartzeaz galdetzen gionean Blankari, berak hauxe erantzuten zigun: "Horretaz hitz egin Iñakirekin". Eta, hala egiten genuen, baita gomen dioak jaso ere. Sarri, dokumentala edo film ekartzeaz gain, zuzendariak ere gonbidatzea aholkatzen zigun, eta, beti izan ez bada ere, askotan, gozatu ahal izan dugu eurekin, Iñakiri kasu eginda. Iñaki, zauden lekuan zaudela, ziur gaude hor jardungo duzula aurtengo Ko-

rrikarako Kote Camatxok, Txillardegia ardatz hartuta, egindako dokumentalari buruzkoak aztertzen, eta gu zuk zer gomendatuko. Mila esker, berriro ere.

Bide batez, zuei ere, Javi eta Julen, besarkada bana.

**AEK euskaltegikook**

### ► ESKERRIK ASKO, IÑAKI

Iñaki Agirre oso lotuta egon da beti kulturari eta Elgoibarko herriari. Zinema munduan, antzerkian... saiatu zen bere ekarpenak egiten. Zinemari dagokionean ezaguna da Ongarriren bidez gure herrian utzi duen itzala, baina gaztaroan antzerki munduan ere egin zituen bere sartu-irtenak. Ez dago ukatzerik, beraz, Elgoibarko bizitza kulturalean arrasto sakona utzi duela Iñakik. Baina beste era bateko ekarpenak ere egin zituen Iñakik, eta gure aldetik eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen berak emandako laguntzagatik. Orain baino garai gogorragoetan, Iñakik asko lagundu zigun udaletxe eta udaletxe kanpoko gaiak aztertzen, hausnartzen eta proposamen berriak irekitzen. Bere epe luze eta sakoneko begiradak asko balio izan zigun gure lanaren norabidea zentratzen eta gartzten. Elgoibarko ezker abertzalearen ibilbidea (Herri Batasuna, Euskal Herriarrok, Sortu) ezin da ulertu Iñaki bezelako pertsonarik gabe. Politika, herrian, herriarekin eta herriarentzako egindako lana, ez da goitik datozen irizpideen aplikazio hutsa, guk, herritarrok, sortzen duguna baizik. Eta plazera izan da zure iritziak entzutea eta zure ekarpenak jasotzea, Iñaki. Laga duzun uzta ez da makala. Zine-kluba martxan, Elgoibarko herriari hainbeste ematen dion Herriko Antzokia bizi-bizirik... eta, gu ere, erronkaz eta arazoz beteriko Elgoibar eta Euskal Herrian, baina martxan.

**Sortu**

### ► ELKARRETARATZEA

Ostiral honetan, hilak 22, elkarretaratzea izango da Kalegoen plazan, iluntzeko 20:00etan, Sebas Etxanizen etxeratzea eskatzeko. 18 urte jarraian daramatza Sebasek espetxean, 75 urte ditu, eta bigarren gradoan dago. Legalki kalean egon beharko litzateke; edo askatasun probisionalean, edo, gutxienez, hirugarren gradoan (era honetan kalera iriteteko baimenak izango litzuzke, eta asteburuak etxean pasatu ahalko litzuzke). Baina ukatu egiten diote hau Sebasei, beti aitzaki iruzurtiak erabiliz. Baldintza guztiak beteta (espetxe barruan lan destinoa egokiro betetzen du, ez du inolako espedienterik, inguru sozial eta familiar egonkorra du...) ukatu egiten diote behin eta berriro hirugarren gradorako pasoa. Laster urtebete etorriko da ETA desagertu zenetik. Zergatik jarrera hori? Mendeku eta kalkul politikoa albo batera laga eta Espainiako Gobernuari eskatzen diogu pausoak ematen hasi dadila. Seguru gaude bizikidetzan onura besterik ez lukeela ekarriko! Sebas, etxera!

**SARE Elgoibar**

### ► MILA ESKER

Javi Vargas, Mufomi fosil eta mineralen museoko arduradunari, eta Jose Julian Marquez, historiaurreko errepliken museo-ko arduradunari, eskerrak eman nahi dizkiegu Elgoibar Ikastolako LH 1.mailako hurrei egindako harreragatik eta emandako azalpenengatik. Mila esker.

**Elgoibar Ikastola**



## Eguberrietako zozketako sariak banatu ditu Txankakuak



Herriko dendetan erosten dutenak saritzeko hainbat bono-txartel banatu zituen Txankakua Merkatarik Elkartek Eguberrietako kanpainaren barruan eta joan zen ostiralean banatu zituzten sariak. Hamar sari ziren guztira banatzeko zituztenak, 1.800 euro dirutan, baina sari bat, 99.194 zenbakia zigokiona, banatu gabe laga zuten, ez zelako jabea agertu (ordezko zenbakia ere bazegoen, baina ez zen haren jaberik bistatu). Kizkitza Agirrek eta Maria Jesus Pineirok jaso zituzten sari nagusiak, 500 euroko bono bana. Beste zazpi lagunek 100 euroko txekak jaso zituzten, Txankakua merkatarien elkarterko dendetan gatzatzeko. Sariak 10 euroko erosketa txeketan jaso zituzten irabazleek. Honako hauek izan dira saridunak: Arantza Parra, Maria Deisy Justiniano, Fernando Aranburu, Elena Rodriguez, Maite Janeiro, Alazne Peñagarikano eta Miren Beloki.

## 'Gazteria, memoria eta transmisioa' izenburuko hitzaldia antolatu du Bizikidetza Taldeak otsailaren 26rako

Nola bizi dute gaztazka, gatazka bizi izan ez dutenek? Nork eta nola kontatu behar die gertatu dena? Era horretako galderari erantzungo die datorren asteartean Bizikidetza Taldeak antolatu duen mahai-inguruan. Leire Ostiza Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Bake eta Bizikidetza teknikaria eta Iker Uson Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa liburuaren egilea izango dira hizlariak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da mahai-ingurua, 19:00etan hasita.



Leire Ostiza eta Iker Uson.



## Udalak autobusa jarriko du doan Donostiako Orfeoiaren kontzertura joateko

Donostiako Orfeoiak eta Gustav Mahler gazte-orkestrak kontzertua emango dute martxoaren 7an Donostiako Kursaallean eta Elgoibarko Udalak autobusa jarriko du kontzertura joateko, doan. Martxoaren 1a baino lehen eman behar da izena, 943 472 158 telefono zenbakira deituta edo [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus) posta elektronikora mezua idatzita. Autobusa King Kongetik irtengo da, 18:40an eta kontzertua bukatutakoak itzuliko da (20:00etan da kontzertua). Ikuskizunerako sarrerak [www.kursaal.eus](http://www.kursaal.eus) web orrialdean daude salgai.

## Zaintza zerbitzua, martxoaren 8an greba eskubidea bermatzeko

Martxoaren 8an emakumei greba egitea errazteko 8 urtera arteko umeentzako zaintza zerbitzua eskainiko du Elgoibarren gizon talde batek. Kultur Etxeko hitzaldi gelan sortuko dute zaintza espazioa, eta zaintzaileen artean hezitzaile tituludun lagunak ere izango dira. Talde horretakoek gonbidapena egin diete egun horretan euren kargu umerik ez duten gizonnei zaintza zerbitzuan laguntzeko. Interesa duenak Elgoibarko gizon boluntarioen e-posta honetara idatzi behar du: [m8gizonekzer@gmail.com](mailto:m8gizonekzer@gmail.com). Era berean, egun horretan umeak zaintzen egongo diren gizonak ere gonbidatu dituzte Kultur Etxera: "Zuen umea gurekin ekarri nahi izanez gero, edo umea zaintzen dagoen gizona bazara, espazioa erabiltzera gonbidatuak zaudete". Jolasak eramateko eskatu dute.

## Elgoibarren, Evaristo Rodriguez izango da Ahal Dugu-Podemosen alkategaia

Evaristo Rodriguez Rabano izango da Ahal Dugu-Podemosen alkatzarako hautagaia maiatzeko Udal eta Foru Hauteskundeetan. 1966ko martxoaren 17an jaioa da Rodriguez, Zamoran. Maisutza industrialara egin zuen gero Elgoibarko Meka ikastetxean eta bi seme-ren aita da. Lana, familia-ardurak, eta politikagintza espeleologiarako afizioarekin uztartzen ditu eta dio "politika neoliberalen kontra egiteko" aurkeztuko dela alkatzara Ahal Dugu-Podemosetik. "Horrenbeste min egin diguten eta egiten diguten politika neoliberalen kontra egiteko sartu nintzen politikagintzan. Uste dut Podemos dela herritarrok geure burua defendatzeko eta korrupzioaren kontra egiteko alternatiba bakarra".



## Iñaki Arregi Uria izango da Mendaroko EAJren alkategaia

Iñaki Arregi Uria aurkeztu du Mendaroko EAJk alkategai izateko. Mendaroarra da Arregi sortzez eta izatez, 50 urte ditu, ezkondua dago eta bi seme-ren aita da. Galdaragintza sektoreko enpresa sortu zuen beste hiru lagunekin batera eta enpresa munduko lana txirrindularitzarako afizioarekin uztartzen du. Legegintzaldi honetan EAJren zinegotzi ere bada, Irune Berasaluze, Maite Apellaniz, eta Angel Mari Iriondorekin batera. "Lanerako gogoarekin eta ilusioarekin aurkezten da, Mendaro eta mendaroarren lau urterako konpromisoa hartzeko prest, herriak dituen erronkei aurre egiteko, eta herri sendoago eta hobeto bat eraikitzeko helburuarekin", jaso du Mendaroko EAJk aurkezpen oharrean.



## Sukalde bilakatuko dute bihar Maalako parkea

*Sukaldaritza sortzen tailerra antolatu dute biharko Elgoibarko Udalak, Sustapen Ekonomiko eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bidez. Aldenik Alden programan parte hartzen duten umeentzako eta Gaztelekuko nerabeentzako tailerra izango da. Ekimen honekin, Udalak helburu bikoitza lortu nahi du: batetik, tokiko kontsumoa sustatzea, eta bestetik, gastronomia zabaltzea gaztetxoentzatean. Bi plater prestatuko dituzte Donostiako Zazpi jatetxeko Paul Arrillaga sukaldariarekin, 10:00etatik aurrera, Maalako parkean.*

# ZOZKETETA

Klik!  
Klik!  
Klik!



Bidali inauterietako argazkiak eta jasotzen ditugun guztien artean **ERRIGORAK emandako BI OTAR zozketatuko ditugu.** BARRENen, martxoaren 15eko zenbakian emango dugu irabazleen berri.

Argazkiak bidali helbide honetara: **barren@elgoibarkoizarra.eus**  
Argazki guztiak **www.barren.eus** webgunean zintzilikatuko ditugu.





## Ekintzaileentzako diru-laguntza deialdia egin du Lanbidek eta eskaerak Debegesan aurkeztu beharko dira

Debabarrenean Debegesak kudeatuko ditu Lanbide-Enplegu Zerbitzuak ekintzaileentzako sortu dituen diru-laguntzak. Eskabideak egiteko epea astelehenean, hilaren 25ean, zabalduko du Debegesak eta martxoaren 1ean itxi. 23 diru-laguntza banatuko dituzte eskualdean (27.000euro). Enpresa-proiektu berriak martxan jartzeko, gehienez ere 1.500 euroko laguntza emango diote sustatzaile bakoitzari. Zenbateko horiek %15 handituko dira, sustatzaileak 18 eta 30 urte bitartean baldin baditu, eta beste %15 emakumezkoa bada. Diru-laguntzaz

gain, aholkularitza eta beharrezko duen laguntza ere eskainiko die Debegesak ekintzaileei. Eskabide-orria [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) webgunean eskegi dute (Argibide gehiagorako: 943 820 110 edo [ekintzaile@debegesa.eus](mailto:ekintzaile@debegesa.eus)).

### 17 enpresa berri 2018an

Debegesak hamazazpi enpresa berri sortzen lagundu zuen iaz Debabarrenean (2017an baino bat gehiago) eta negozio berri horiek 61 lanpostu zuzen sortu dituzte. 2018an, guztira 97 pertsona joan ziren Debegesara enpresa

bat sortzeko informazio edo aholkularitza eske eta joan ziren guztietatik 22ren proiektuentzako bideragarritasun-planak landu zituzten. Eta azkenean, 17 jarduera berri abiarazi zituzten. Jarduera horien sustatzaile gehienak 45 urtez azpikoak dira eta erdia inguru emakumezkoak (%41). Gehienek goi mailako edo maila ertaineko prestakuntza dute (%76). Sortu diren jarduera berriei dagokienean, ia erdia zerbitzuen sektoreko enpresak dira (%47), %18 industria sektorekoak, %29 merkataritza arlokoak eta %6 ostalaritzakoak.

## Maiatzerako erabilgarri egongo da Aita Agirre kultur eraikina

Aita Agirre kultur eraikinera bisita egin zuten joan zen eguaztenean Denis Itxaso Kultura diputatuak eta Mari Jose Telleria Kultura zuzendariak. Ane Beitia alkateak, Iosu Arraiz Hiriguntza zinegotziak eta Andrea Arriola Kultura zinegotziak egin zieten harrera, eta obrako arduradunek lagunduta eraikina barrutik ikusteko aukera izan zuten guztiek. Aita Agirre proiektuak 3 milioi euro inguruko aurrekontua izan du, eta Foru Aldundiak 510.000 euro jarri ditu eraikina eraberritu eta zaharberritzeko. Ibilaldia hasi aurretik, Udaleko agintariek zehaztu zuten obrak apirila hasierarako amaitzea aurreikusten dutela eta maiatzerako erabilgarri egongo dela kulturagune berria. "Oso gutxi falta da Aita Agirre espazio soziokultural erreferente bihurtzeko, ez bakarrik Elgoibarren, baita eskualdean ere. Erabilera anitzeko espazioa izango da, moldagarria, instituzioen elkarlanetik jaiotakoa eta herriko elkarteek adierazitako beharrianetara egokitutakoa", esan zuen Ane Beitia alkateak.



## ▶ AITZOLE ARANETA

SEXOLOGOA

'Haur eta gazteen transexualitate egoerak: sexu aniztasunaren balioa' izenburuko tailerra eskaini zuen hilaren 8an Elgoibarren Aitzole Aranetak (Donostia, 1982). Sexologoa eta Pasaiako Udaleko Berdintasun teknikaria da Araneta, eta transexualitate egoeran dauden haurren gurasoen elkarteak (Naizen) kidea. Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak, Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, Ikastolako Guraso Kontseiluak eta Haurreskolako eta Arreiturre Institutuko gurasoek antolatu zuten tailerra elkarlanean, transexualitate egoeran dauden adingabeek bizi duten egoera ulertzeko ezagutza, erreminta eta estrategiak lantzeko. Informazio gehiagorako: [www.naizen.eus](http://www.naizen.eus).

- AINARA ARGOITIA -



# "Sexu-identitatea ez dago hankartean"

### ♦ Esaguzu nor zaren.

Aitzole Araneta naiz, sexologoa naiz eta Berdintasun teknikari gisa lan egiten dut. Gainerako ume guztien antzera, hitz egiten hasi nintzenean esan nuen nik zer nintzen: neska. Hori, zer garen horren umetan zehaztea, horren goiz esatea, oso ohikoa da; ez pentsa gu salbuespena garenik. Gertatu zitzaidana da gainerako umei onartzen zieten ukatu egin zidatela niri, nire genitalak maskulinoak zirelako. Zakildun neska nintzen, eta hor korrelaziorik ez dagoenez, arazoak sortu zitzaizkidan.

♦ **Nor zara galderari 'neska naiz' edo 'mutila naiz' erantzuten ikusi ditugu transexualitate egoeran dauden umeak ere Naizen azken iragarkian. Eta 'neska izan nahi du' edo 'mutil izan nahi du' esaten entzun ditugu**

### beste asko gero, ume horiez ari direla.

Bai, batzuek argi dute zer diren, baina besteek ez dute ulertzen, genero identitatea genitalai lotuta ulertzen dutelako. Eta arazoa eurena bada ere, besteena egiten dute. Bizitza zailtzen diete transexualitate egoeran dauden umei askotarikoak gaudela ikusten ez dutenek. Hala, ume hori ere iritsi daiteke pentsatzera berea ez den gorputz batean jaio dela, hala esaten delako sarri transexualitate egoeran daudenez, baina berea ez bada, norena da bada gorputz hori? Kontua ez da izaten ume hori bere gorputzarekin gustura ez dagoela. Arazoa beste bat da: besteek ez dutela ume horren identitatea errespetatzen.

♦ **Transexualitatea hitza ere zalantzan jarri izan duzu zuk behin baino gehia-**

### gotan. Zer da transexualitatea?

Transexualitatea hitz bat da, balio diguna orain egoera bat definitzeko, baina bere tranpa ere baduena. Hitzak adierazi nahi du gure sexualitatea aldatu egin dela, baina gu ez gara aldatzen. Aldatzen dena da besteek nola ikusten gaituzten. Trantsizioa ez dugu guk egiten, baizik eta gure ingurukoek eta gizarteak. Inor ez da sexuz aldatzen, baina kontua da genitalak aldatu arte besteena pentsakera ez dela aldatzen. Gu beti gara gu, aldatzen dena gizartearen txipa da. Beraz, sexualitatearen aldaketa hori mito bat da. Egia da genitalak aldatzeak agian erraztasun batzuk ekar diezazkiokeela transexualitate egoeran dagoen pertsonari, gure gizarte honek bulba neskekin lotzen duelako eta zakila, mutilekin. Kasu gehienetan zakildunak mutilak dira, bai,



eta bulbadunak neskak, eta kasu gehiengoa hori horrela dela izateak beti horrela dela pentsatzera eraman gaitu. Are, iritsi gara pentsatzera genitalengatik garelako neska edo mutil. Eta argi utzi nahi dut gauza bat: ez nago ebakuntza egitearen kontra. Aukera bat da, eta norberak erabaki behar du hori ere. Gertatzen dena da ebakuntza horri lotuta ulertzen dela transexualitatea gaur, oker, eta berez, transexualitate egoeran daudenen %10ek bakarrik egiten dutela ebakuntza. Eta horrek berak argi erakusten du sexu-identitatea ez dagoela hankartean. Sexu-identitatea prozesu mentalekin dago lotua. Gauza bat da daukaguna, eta bestea, garena, eta horregatik, sexu batekoa edo bestekoa izatea, umea hizketan hasten denetik aurrera jakin dezakegu ziur. Ni neu neska naiz, neska naizela dakidalako.

#### ♦ Zeintzuk dira haur transexualen gurasoen kezka nagusiak?

Gizarteak beren seme-alabak alboratuko dituen beldur dira gurasoak; Ikastolan, lagunartean... baztertuta geldituko ote diren. Eta ari naiz seme-alaben identitatea onartzen duten gurasoek, badirelako beste asko diren hori ukatzen dietenak euren seme-alabei. Heldu bati aitortuko diote agian nor den jakitea, baina badirudi haur eta nerabeen kasuan zilegi zaiela zalantza jartzea gai ote diren nor diren identifikatzeko. Guraso horientzat *putada* bat da hau dena; arazo bat. Chrysallis edo Naizen elkarteak gurasoentzat, baina, arazoa ez da umea, baizik eta ingurua. Osasun zerbitzuetan euren seme-alabak nola tratatuko dituzten beldur izaten dira adibidez, transexualitatea, oraindik orain, buruko gaixotasuntzat dagoelako hartuta. Hezkuntza komunitateak nola erantzun ote duen kezka ere badute, era berean. Ikaskideek onartuko ote duten umea eta nola eta zein izenekin sozializatuko den edo zein izenekin agertuko den umea zerrendetan, izenak ere informazio asko ematen duelako. Nerabetan, bikotekiderik izan ahalko duten zalantza izaten dute gazteek eurek eta baita gurasoek ere, tradizionalki mezu okerra zabaldu delako: beste norbait behar du-

gula beti eta pertsona hauek beti egon direla bakarrik eta beti egongo direla isolatuta. Itsusitasunarekin ere lotu izan da transexualitatea. Baina gure artean ere denarik dago, eta batzuek gaitasun sozial handiagoak izango dituzte eta beste batzuek txikiagoak.

*“Ez dugu genitalak aldatu beharrik edo beste batek baimena eman zain egon beharrik garena izateko”*

#### ♦ Beharbada, zuk esan duzun harremantze kontuengatik-eta, nerabezaroa da garairik zailena?

Bai. Aztertu behar dugu transexualitate egoeran dauden gazteak nola iristen diren nerabezarora eta nola iristen diren besteak. Hor dago aldea. Nerabezaroa oso garai konplikatu da beti, baina transexualitate egoeran daudenek maila batzuk beheragotik hasten dute borroka hori, diren hori ere ukatzen zaielako edo ukatu izan zaielako. Gainerako nerabeen kezka berdina dituzte, eta gainera, onartuak izango ote diren kezkaz gainera, erabaki zailak ere hartu beharko dituzte, adibidez prozesu hormonalak hasiko duten edo ez. Gainerako nerabeena baino askoz motxila astunagoarekin ibili beharra dute. Meritu handia dute.

#### ♦ Oraindik azalpen asko eman behar badira ere, urratsak egingo ziren. Belaunaldi hau al da umetatik entzuna eta ulertua izan den lehenengoa?

Adinez nagusi egin aurretik familian kontatu izan dutenen lehenengo belaunaldia da, bai, baina hori ez da diren denek kasua izan. Askok oraindik isilean bizi dute hau eta esan izan dutenetako batzuek ere nerabe direla esan ahal izan dute zer diren. Baina bai, umetan adierazi ahal izan dutenek laguntza jaso ahal izan dute. Nik uste dut luze gabe iritsiko dela

zuk diozun eguna, pixkanaka ari garelako gizartearen begirada aldatzen. Jendeak agian oraindik ez dauka oso argi transexualitatea zer den, baina behintzat orain badakite egon badaudela transexualitate egoeran dauden haurrak. Sexu-aniztasunaren mezua zabaldu behar dugu.

#### ♦ Transexualitatea oraindik ere buruko gaixotasuntzat hartua dela salatu duzu.

Bai. Estatu espainiarrean indarrean dagoen 2007ko lege batek dio sexu-markatzailea aldatzeko, eskatzailea adinez nagusi izan behar dela, nazionalitate espainiarra izan behar duela, eta gainera, psikiatra edo psikologo publiko baten txostena aurkeztu behar duela bere “nahasmendua” frogatzeko. Eta horri gehitu pertsona horrek gutxienez bi urteko prozesu mediko bat pasatu behar duela. Beraz, legez, buruko gaixotasuna da gaur-gaurkoz transexualitatea, eta gainera, helduek bakarrik izan dezakete. Baina hau ez da kapritxo bat, aizue, eta gu hau dena aldatzeko ari gara lanean, aniztasun horretan denok zoriontsu bizi ahal izateko. Guk ez dugu genitalak aldatu beharrik, ez eta beste batek baimendu zain egon beharrik garen hori izaten jarraitzeko.

#### ♦ Zer behar dute haur hauek? Zer dugu egiteko?

Egoera honetan dagoen haur batek behar duena beste haur guztiek behar duten berdina da: bere ingurukoek entzuteko gaitasuna izatea, onartua eta den bezala maitatua izatea. Transexualitatea ez da nahasmendu bat, ez da buruko gaixotasun bat, ez da anomalia bat eta iruditzen zait sexologok lan handia dugula egiteko hor, batzuek uste arren gure lana ohe kontuetara mugatzen dela. Balore egokiak transmititzea dagokigu. Genitalen inguruko tabua eta obsesio hori gainditu behar dugu, gehiegi erabilitzen ditugulako genitalak nor garen definitzeko. Genitalak baino askoz gehiago gara denok ere, eta hori da hemen zabaldu behar dugun mezua. Zergatik mugatzen dugu gorputza genitaltetara? Zergatik bereizten ditugu gorputz okerrak eta zuzenak? Zeren araberak?



## ▶ PILAR HERRERO SOKOBEHERE MARGOLARIA

# “Marrazteak sekulako poza ematen dit”

‘Gizakia koloretan’ erakusketa zabaldu du Pilar Herrero Sokobeherek Elgoibarko Kultur Etxean, Haizea Emakume Taldearen eta Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren eskutik. Gaur zortzi ireki zuten, eta hilaren 28ra arte egongo da bisitatzeko aukera, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Sortzez Donostiarra da Herrero, baina Elgoibarren bizi izan zen 32 urtez.

- AINARA ARGOTIA -

### ◆ Nondik datorkizu marrazketarako afizioa?

Marrazkiak beti gustatu izan zaizkit, baina ume nintzenetik ez nuen arkatx bat hartuko eskuan. Paperezko mantelen er-tzetan egin izan dut noizbait karrikatura bat edo beste, baina gehiagorik ez. Jubilatuko osteko afizioa da hau. Jubilatuko nintzen konturatu nintzen ordu gehiegi neuzkela betetzeko, eta denda batera joan eta marrazteko materiala erosi nuen. Gogoan daukat gezurretan aritu nintzaiola dendariari esanez opari bat egin nahi niola lagun bati. Ez neukan teknika-rik, ezer gutxi nekien marrazketaz, eta bel-dur nintzen galdezka hasiko ote zitzaidan. Ordurako hasia nintzen saketako telefonoan marrazki batzuk egiten, propio horretarako jaitzako aplikazio bat-ekin. Margotzen etxean aritzen nintzen eta senarrak animatu ninduen Zarauzko Artezalea marrazketa tailerrean izena ematera. Eta joan nintzen, latsa-latsa eginda. Bigarren egunerako etxean egindako zerbait eramateko agindu zidan irak-askleak eta eraman nituen nire ustez lanik onenak zirenak eta han etorri zitzaizkidan

ikaskide guztiak gainera, nire lanak ikus-tera. Hura lotsa! Ez nekien non ezkutatu. Orain, oso gustura nabil, eta izugarri ari naiz ikasten.

### ◆ Erretratuak dira hona ekarri dituzun denak. Ez du ematen marrazteko erra-zena izan behar duenik erretratuak.

Ez dakit. Hala esaten dute batzuek, zailena erretratuak marraztea dela, baina hobeto edo okerrago egin, niri hori da gehien gustatzen zaidana. Marrazten ditut beste gauza batzuk ere, baina erre-tratuak ikaragarri gustatzen zaizkit. Gogoan daukat egin nuen lehenengoa ere. Irakasleak eskatu zidan argazki bat eramateko eskolara, eta senarra eta bioren bat eraman nuen marrazteko. Nondik hasi ere ez nekiela egon nintzen, baina egin nuen nola-halako bat. Zer hobetu asko du, baina ordurako badu bere meritu ere. Poz-pozik gelditu nintzen orduan. Teknika ezberdinak ere probatu ditut, baina akrilikoa erabiltzen dut gehien, nire ezaugarrietarako onena delakoan. Segituan lehortzen da, eta egokia da niretzat, lanak azkar bukatu zalea naizelako. Ez daukat batere pazientziarik.

### ◆ Arterako pazientzia handikoa izatea ezinbestekoa zela uste nuen.

Ordu gutxiko pazientzia daukat nik. Margotzen hasi eta pare bat orduan agortzen zait. Hori naiz ni. Egia da asko-tan uste dugula denbora asko eskatu digun koadroa hobea dela, baina niretzat meritu handiagoa du denbora laburrean zerbait ikustarazteak. Estilo kontua da, denak dira balekoak, baina nire ezaugarria hori da. Ez naiz detaileetan galtzen. Hasi eta bukatzea gustatzen zait. Egiten ari naizen horren emaitza ikusi beharra daukat; horrek lasaitzen nau ni. Erakusketan dauden obra gehienak pare bat orduan egindakoak dira. Hiru orduren ondoren emaitzarik ikusten ez badut, ez nago lasai. Gainera, egindakoa zuzentzen hasten banaiz, okertu baino ez dut egiten. Lehen begiratuan margotzea gustatzen zait. Margolari batek esan zidan behin nik ikusi egiten nuela. Momentuan ez nion ezer ulertu, baina egia da margotzen hasterako ikusi beharra daukadala emaitza, itxurazko zerbait egingo badut. Lagun batek esaten dit espontaneo naizela eta ez galtzeko freskotasun hori. Ez





dakit zehatz zer esan nahi duen horrekin, baina nik hala lan egiten dut, bestera ez dakidalako.

♦ **Lotsa-kontuak aipatu dituzu. Erakusketa bat paratzeko ezinbestean alboratu beharreko zerbait izango da hori. Non eta noiz jarri zenuen zure estraineko erakusketa? Zelan oroitzen duzu egun hori?**

Ausardia eskatzen du, bai, halako zerbait egiteak. Lehenengoetan lorik ere ez nuen egiten. Erakusketa batean norbere barrua erakusten dugu, eta lotsatiak garenontzat hori erabat biluztea da. Lotsarena gaintzeko, Zarauzko Alproja antzerki talde amateurrean ere sartu nintzen. 80 bat lagun izango gara, gehienak oso gazteak, eta urtero antzezlan bat sortzen dugu Zarauzko Euskal Jai egunerako. Alproja taldekook antzeztutako pertsonaien erretratuak ere egin izan ditut. Antzerkiak lagundu dit lotsa gaintzen. Aiako kafe-tegi batean jarri nituen estrainekoz erakusgai nire lanak, irakasleak eskatuta. Sakelakoarekin egindako marrazkiak ziren, eta gustura gelditu nintzen. Saldu ere egin nituen batzuk. Gero etorri dira tailerreko ikaskideekin batera eta Zarauzko artista jubilatuekin batera egindako erakusketa kolektiboak eta bakarka egindakoak. Hala ere, Elgoibarko hau ezberdina da. Estrainekoz erakutsiko ditut nire lanak Kultur Etxe batean, non eta Elgoibarren. Hunkituta nago, ohore bat delako niretzat hemen erakustea. Deitu zidatenean okerrekoari deitu ziotela ere pentsatu nuen.

♦ **Erakusketan, etnia ezberdinetako gizon-emakumeen erretratuak ikus ditzakegu. Kanpora joan zara modelo bila. Zergatik?**

Joan ez naiz inora joan, Internetez hartutako modeloak edo lagunak egindako bidaietatik ekarritako argazkietatik hartutakoak direlako gehienak, baina bai kanpoko etnietakoak dira guztiak. Erakargarriak egin zaizkidalako margotu ditut hauek, koloretsuak direlako eta niri kolorea gustatzen zaidalako. Gu modernoegiak gara; ez dugu horrenbeste apaingarri erabiltzen, ez eta horrenbeste kolore ere.

♦ **Gehienak emakumeak dira. Propio aukeratu al dituzu?**

Ez, baina egia da gehienetan emakumeak margotzen ditudala. Erakargarriak zaizkit, arrazoia ez dakidan arren. Emakume adinekoak gustatzen zaizkit gehien. Gaztetasunarekin lotzen dugu sarri edertasuna, baina hemen nabarmen ikusten da edertasuna ez dela adinarekin galtzen den zerbait. Nork bere edertasuna du.

♦ **Erakusketako zein obra duzu maiteen?**

Adinekoenak gustatzen zaizkit gehien, baina bakarria aipatu behar badut, kartelera eraman dudana aukeratuko dut. Emakumezkoa ematen duen arren, gizonetzkoa da argazkikoa.

♦ **Beranduko afizioa da zurea. Zer esango zenieke zure adinkideei?**

Gustatzen zaien hori egiteko eta bes-

tela topatzeko afizio bat eta ekiteko. Sekulako poza ematen du honek. Gaztetako positibotasuna galduz joaten da adinarekin eta ez dago gustatzen zaiguna egitea baino terapia hoberik. Sortzeak poza ematen du, eta denok daukagu sortzeko gaitasuna. Minen bat dudanean edo goibel jartzen naizenean hartzen dut pintzela eta min denak ahazten zaizkit. Familia-koek eta ingurukoek askotan esaten didate: "Ez genekien margotzen zenuenik", eta "neuk ere ez" erantzuten diet nik. Baina gure irakasleak dio sormen tailer batera doan edonork duela zerbait, eta egia da. Orain konturatzen naiz egonezin bat banuela nik ere, baina urteetan lozorroan egon dela, zorionez esnatu zen arte. Orain, arropak lisatzen ari naizela ere margotzen ibiltzen naiz. Lekak zatitzen ari naizela ere jardun naiz margotzen eta leka horiren bat ere joan zait noizbait lapikora!. Lehen, irakurtzea zen nire afizioa eta ez nuen liburua bukatu arteko onik izaten. Orain, eskua poltsikoan sartu eta borragoma bat topatzen badut, ezin naiz margorik hartu gabe gelditu.

♦ **Baduzu beste gairen bat buruan, etniekin bukatutakoan hasteko?**

Etniak ez dira bukatzen. Gaur egungo baliabideekin nahi beste modelo lor ditzakegu, baina bai, badut beste serie bat buruan: ume langileak. Hala ere, ez nago oso animatuta. Egin nahi dut, baina pena ere ematen didate, eta hor nago, zalantzan. Baina hasi beharko naiz, badelako bistaratzea komeni den beste gai bat.





*Pedro Ortuondo museoko zuzendari laguntzailea, Bea Ansola zuzendaria eta Valentin Larrañaga makinaren arduraduna.*

## 20 urtez erreminta makinaren historiaren lekuko

**Erreminta makinaren museoak 20 urte bete ditu, eta urteurren hori prestatzeko lanetan harrapatu ditugu museoak langileak. 1997an hasi zituzten obrak eta urtebete beranduago zabaldu zuten museoa. Makina erremintarekin lotutako industria ondarea berreskuratzeko eta zaintzeko helburuarekin sortu zuten museoa, eta denbora honetan museoa asko aldatu bada ere, hasierako helburu berberak mantentzen ditu. Mendea pasa duen industriaren historiaren lekuko da museoa, historiaren gordailu eta bilakaeraren erakusleihu.**

- AINHOA ANDONEGI -

Industrian aldaketa handia gertatu zen 70eko hamarkadan. Mekanikatik elektronikarako eraldaketa eman zen, eta aldaketa horren aurrean moldatu beharra zegoen. 1994an batzorde tekniko bat

osatu zuten, egoera eta behar berrietara egokitu ahal izateko. Hezkuntza, enpresa mundua eta elkarteak batu ziren batzorde horretan: Alberto Ortueta (AFM), Jose Rejo eta Pedro Ortuondo (IMH), Patxi Aldabal-

detrecu (Danobat), Jose Zabala (Alkartu), eta Jose Julio Carreras (Eusko Jauriaritza). Zeregin desberdinak hartu zituzten bere gain batzorde horrek, eta beste hainbat egitekoen artean erreminta makinaren his-





toria jasotzea erabaki zuten. Erabaki horren barruan eman zituzten erreminta makinari buruzko museo monografikoa sortzeko lehenengo pausoak, argi eta garbi ikusi zutelako Elgoibarrek erreminta makinaren museoa behar zuela, Elgoibarko jarduera ekonomikoan oinarritzakoa den industria-ondarea berreskuratzea eta gizarteratzeko.

Museoa sortzeko helburuak zehaztu zituzten lehenengo: batetik, erreminta makinarekin lotutako industria ondarea berreskuratzea eta zaintzea nahi zuten. Bestetik, iraganeko ondarea jasoz makina erremintaren etorkizuneko teknologia garatzea nahi zuten. Testuinguru horretan XIX. mendeko amaieran eta XX. mendeko industria iraultzan garatutako ereduak erantzuteko, desagertzearen zeuden makinak jasotzen hasi ziren, makineria parke bat

osatzeko "makineria parke historikoa" izango zena sustatzeko, zehaztu du Pedro Ortuondok, orain gutxira arte museoak zuzendaria izan denak. Bildu zituzten dozena bat makina, baina museo oraindik eraiki gabe zegoen. Hala ere, pentsatu zuten industriaren ondare hura ezin zutela ezkutuan laga, eta IMHko beheko solairuan jarri zituzten ikusgai.

Museoa sortzeko dirua behar zuten, eta hainbat diru-iturri batu zituzten: enpresak, Elgoibarko Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta baita partikularren ekarpenak ere bai. 420 metroko eraikina aurreikusitako zuten, eta haren kokapenak ere eman zituen zenbait eztabaida. Azkenean, gaur egun dagoen lekuan kokatzea erabaki zuten, IMHko sarreran, tenis kantraren gaineko aldean. 1995ean idatzitako museoaren proiektua LKS enpresak, Santiago Ceciaga arkitektoaren gidaritzapean. 1997an hasi zituzten obrak, eta 1998ko uztailerako prest zegoen museoa. Valentín Larrañaga Bergarako Talleres Eguren enpresako langilea zena jarri zuten museoak makinaren arduradun, eta Pedro Ortuondo zuzendaria. Ordura arte IMHn zeuden makinak museora lekualdatzea eta haien martxan jartzea izan zen lehen lana. 1998ko abenduaren 16an inauguratu zuten museoa Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariak.

420 metro koadro dituen museoak, eta hiru nabe nagusi bereizten dira. Erdialdeko nabe nagusia mekanizazio tailerra dago, eskumako nabean, erremintariaren txokoa eta Erdi Aroko gunea dago, eta ezkerreko nabean Patxi Aldabaldetrecu aretoa eta Sigma gela daude.

Mekanizazio tailerreak bi isurkiko estalkia dauka, eta estalki hori zurezko zertxek sostengatzen dute. Horietatik euskarriak eta poleadun transmisio ardatzak daude zintzilik, eta makina guztiak mugimendua transmititzen da polea eta uhalen bidez. Sistema honi esker gure arbasoen garaian nola lan egiten zuten ikus daiteke.

Erremintariaren txokoa elementu tradizionalak daude erakusgai, gehienak XV. eta XVI. mendean erabili zirenak. Horrez

gain burdindegietan sortzen den masa erdi-metalikoa, *agoa* izenez ezagutzen den materialaren lagin bat ere badago. Erdi Aroko gunean, bestalde, artisau mekanizazio prozesuak ikus daitezke, eta baita ere, armagintzarekin lotzen den Larmoten grabatua. Garai hartako gremioen antolakuntzari buruzko informazio asko ematen du grabatuak, eta armen ekoizpenari buruzko xehetasun grafikoak eskaintzen ditu.

Azkenik, Patxi Aldabaldetrecu aretoa eta Sigma gelan, Estarta y Ecnarro eta Sigma josteko makina-enpresei buruzko erakusketa ikus daiteke. Elgoibarko Sigma eta Eibarko Alfa enpresetako makinez gain, atzerriko Singer eta Kay&co etxeak ere ageri dira. Sigma gelan industria alorreko emakume langileei eskaintako gunea izatea nahi dute arduradunek, eta erakusketaren helburua da industrian alboratuta eta ezkutuan egon den emakumeen lana balorean jarri eta bistaratzea.

Erreminta makinaren museoak bisita asko eta desberdinak jasotzen dituen urtean zehar. 2018an, esaterako, 2.500 bisita izan zituzten. Museoan garatzen dituzten jarduerak publiko zabal bati zuzendutakoak dira, eta Euskal Herri guztiko enpresa munduko, hezkuntzako eta bestelako bisitariak jasotzen ditu. Museoaren helburuetako bat hezkuntzan kokatzen da, eta transmisioa lantzen dute. XIX. mendean fabrikazio prozesuan erabiltzen ziren makinetatik gaur egun erabiltzen diren makinetara egon den bilakaera lantzen dute ikasleekin.

## Museoa etapa berrian

20 urte ez dira alferrik pasatu, eta denbora horretan museoak asko aldatu da. Arduradunen iritziz, egungo museoak osatuagoa, aberatsagoa eta erakargarriagoa da. 20. urteko ibilbidearen balorazio positiboa egiten dute, eta Ortuondok uste du 1998an jarritako helburuak bete dituztela. Nolabait esateko, erreminta makinaren jatorriaren eta Euskal Herriko tradizio industrialaren berri eman diote mundu osoari, eta pozik daude egindako lanarekin. Horrez gain, bisitariak museoan ondo balora-

tzen dute, eta horrek harro sentiarazten ditu. Hala ere, oraindik lan handia dute egiteko, eta hogeitaz ostean, museoa etapa berri baten aurrean ikusten dute. Pedro Ortuondo bigarren plano batean dago orain, eta Bea Ansola da gaur egun museoko zuzendaria. Etapa berri honetan museoa gizarteratzea izango da helburu nagusia, hau da, orain arte egindako lana bistaratzea eta ezagutzera ematea, bai Elgoibarren eta baita herritik kanpora ere. Burutuko dituzten jarduerak helburu didaktikoa izango dute, eta komunitate oso-

ari zuzendutakoak izango dira. 20. urteurrena aitzaki hartuko dute historia industriaren kontaketa egiteko, eta hainbat jarduera antolatu dituzte horretarako. Museoan bertan ofizio desberdinen erakustaldiak egingo dituzte, eta kalean ere egingo dituzte ekintzak, jendearen bistan. Besteak beste, emakumea eta industriari buruzko tertuliak eta argazki erakusketa egingo dituzte, bideo emanaldiak eta sormena lantzeko tailerrak. Horrez gain, ospakizun ofiziala datorren eguaztenean egingo dute IMHko Alberto Ortueta are-


toan, eta besteak beste, Iñigo Urkullu Jaur-laritzako lehendakariak eta Ane Beitia Elgoibarko alkateak hartuko dute parte.

Makina erremintaren hiriburua bezala ezagutzen da Elgoibar, eta Makina Erremintaren Museoa pieza garrantzitsua da testuinguru horretan. Erdi Arotik gaur egunera arte burdinaren lanketak izan duen garrantzia biltzen du museoak. Makina Erremintaren Museoari esker hobeto ulertu daiteke Elgoibarko eta inguruetako industria izan dena, gaur egun dena eta etorkizunean izan daitekeena.

## Lamoten grabatua

20. urteurrenako ekintzen barruan, *Lamoten Grabatua* liburua argitaratu dute, eta datorren eguenean aurkeztuko dute, urteurrenako ospakizun ekitaldian bertan. Florencio Josepf de Lamot Gondesoone Baillerbi (Flandria) herrian jaio zen, 1701. urtean. 1736an Euskal Herrira etorrita, Sorluzeko eta Tolosako Errege Arma Lantegien kontuhartzailea izan zen, eta gerora, ikuskatzailea. 1757. urtean armagintzari buruzko grabatu bat egin zuen. Marrazki eta testu ugariaren bidez, armen ekoizpenari buruzko informazioa jasotzen du grabatuak, eta garai hartan ekoiztutako hainbat arma klaseri buruz hitz egiten du. Grabatuaren beheko aldean, bestalde, armagintzan garrantzi handia duten lau gremiori buruzko azalpenak ageri dira: kanoigileak, kaxaginak, aparejuginak eta txispaginak. Antolakuntza horrek 300 bat urte iraun zituen, XVI. mendetik XIX. mendera arte. Lamot 1779ko uztailaren 30ean hil zen, 78 urte zituela.

1999an Remiro Larrañaga Sorluzeko historiagileak Lamoten grabatuaren kopia bat oparitu zion Elgoibarko Erreminta Makinaren museoari. Agiri horrek Debarroko industriaren tradizioa egiaztatzen du, eta armagintzaren sorreraren lekuko da. Pedro Ortuondo orain gutxira arte museoko zuzendari izan denak grabatu hori transkribatzeko gogoia zeukan aspalditik, eta museoaren 20. urteurrenaren harira bost hizkuntzatan argitaratu dute liburua. Liburu honekin armagintzaren sorrerari eta armagintzan lan egin dutenei omenaldi moduko bat egin nahi izan diete, mendez mende egin duten ahaleginari esker iritsi delako euskal industria gaur egun dagoen lekura.



**Otsailak 27, eguaztena**

### 20. urteurrenako ospakizuna

**9:30** Gonbidatuei harrera, IMHko sarreran.

**10:00** Iñigo Urkullu Jaur-laritzako lehendakariak museora egingo duen bisitaren zuzeneko emanaldia.

**10:30** Lehendakariak eta egintariak gonbidatuak agurtuko dituzte.

**10:35** Ekitaldiaren eta liburuen aurkezpena. Rafael Barrenechea museoko presidentek, Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta César Garbalena AFMko presidentek hartuko dute parte.

**10:45** Manuel Lageren hitzaldia. *La historia del automóvil en España. Una visión nueva.*

**11:15** Itxiera, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik.

**11:30** Ogibide tradizionalen zuzeneko erakusketa eta luntxa museoan.



## Juan Martin Elexpuru filologoak hasiko du Erromaren aginteak Euskal Herrian izan zuen eragina ezagutarazteko hitzaldi zikloa

**E**rroma *Euskal Herrian* izeneko hitzaldi-zikloa antolatu du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Udalaren laguntzaz, eta datorren astean izango da lehenengo emanaldia. Juan Martin Elexpuru historiagileak Iruña-Veleiari buruzko hitzaldia emango du. Eguaztenean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etatik aurrera. Zikloa osatzeko beste bi hitzaldi ere antolatu dituzte: Apirilaren 10ean *Erroma eta Euskal Herria*. *Gizartearen eta lurraldearen egituraketa* hitzaldia emango du Jokin Lanzek, eta irailaren 18an, berriz, euskalduntze berantiarrari buruz mintzatuko da Luis Mari Zaldua.



Imanol Larrañaga, Ibon Serrano eta Jon Barandiaran ekimenaren sustatzaileak.

Hiru hitzaldi izango dira guztira, eta, besteak beste, okerreko zenbait uste zuzentzen saiatuko dira. Gainera, erroma-

tarren garaiari dagozkion zenbait eztabaida edota polemika ere bistaratuko dituzte.

## Xaboi tailerra egingo dute bihar, hileko azken zapatuko ferian

Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da bihar hileko azken zapatuko ferian, eta 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Institutukoek txosna zabalduko dute. Eguerdia parterako, xaboi tailerra antolatu du Debemenek, ume eta gaztetxoentzako. Aita Agirre plazan, bestalde, ganadu erakusketa egingo da. Kale Kantariet orangoan San Lazaro egoitzan eskainiko dute kantaldia, eta gero, bazkaria egingo dute. Hileroko azoka hauek Udalak antolatzen ditu Debemenekin elkarlanean, bertako baserriarrek ekoizturiko produktuen kontsumoa bultzatzeko, *Baserrikoa* ekimenaren barruan.

## Andoaingo Piano Jaialdian hartu dute parte Elgoibarko eta Mendaroko haurrek

Andoaingo Piano Jaialdia ospatu zuten joan zen asteburuan, eta bertan, Inazio Bereziartua musika eskolako 25 ikaslek eta Mendaroko Ameikutz musika eskolako lauk hartu zuten parte. Elgoibarko hamar ikaslek bakarka hartu zuten parte, eta urrezko lau domina eta zilarrezko sei eskuratu zituzten. Binakako kategorian, Elgoibarko zortzi bikotek hartu zuten parte eta denen artean urrezko sei domina eta zilarrezko bi lortu zituzten. Bikotekako sailean, gainera, Nora Arzamendi eta Maria Sasiainek osatutako bikoteak ohorezko aipamena jaso zuten eta itxiera ekitaldian jotzeko aukeratu zituzten bi pianojoleak. Mendarotik, bestalde, Aimar Enjuto, Haizea Irasuegi, Haizea Urkia eta Ilune Rico joan ziren, eta zilarrezko domina bana eskuratu zuten.



## Hiru elgoibartar saritu dituzte Euskal Mendizaletasunaren Galan



**E**uskal Mendizaletasunaren 23. Gala ospatu zuten otsailaren 15ean Elorrión. Euskal Mendizale Federazioak 2018ko mendiko kirolari onenak saritzeaz gainera, Pyrenaica sariak ere banatu zituen. Azken horietan, Pyrenaica-ko emakumeen blogaren IX. sarian, sarrera gehien izan dituen kolaboratzailearen saria jaso zuten Izaskun Estibaritzek eta Jose Inazio Izagirrek, *Mendikolore* blogean idatzitako artikuluetatik. Argazkilari amorratuak dira biak, eta mendiko ibilbideak dibulгатzea da beraien pasioa. Mendikolore blogean uztartzen dituzte bi pasioak 2011. urteaz geroztik. Alberto Fernandez alpinista elgoibartarrak, berriz, jarduera alpinistikoko onenaren Andres Espinosa saria jaso zuen. Euskal Mendizale Federazioak 2015an ere eman zion sari hau Fernandezi. Oraingoan, baina, bi lagunekin batera -Iñaki Arakistainek eta Joseba Larrañaga- jaso du. Hiru mendizale gipuzkoarrek, Mikel Zabalza nafarrekin batera, *Bizipenak* bide berria zabaldu zuten Drangnag-ri mendian (6.802 metro), Himalaian. Mendi horretako hego mendebaldeko ertzetik egiten den lehen igoera osatu zuten.

## Berriatuako Asterrika auzoraino egin zuten mendi ibilaldia umek eta helduek Morkaikorekin



Aspaldiko partez eguraldi ona egin zien Morkaikok eta ikastetxeek antolatzen dituzten mendi irteeretako azkenengoan parte hartu zuten ia 90 lagunei. Arno mendira igotzea zen hasierako asmoa, baina Kalbario gainerako bidea trafikoarentzat itxita dagoela-eta, Ondarroa eta Berriatua artean dagoen Kalamendi (315 metro) mendira joatea erabaki zuten. Denboraz justu zebiltzala eta, Asterrika auzoan amaitu zuten txangoa. Hurrengo mendi irteera martxoaren 10ean izango da.

## Aste Santuko Kirol Campuserako izena emateko epea, irekita

Aste Santuko Kirol Campusa jarri du martxan Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, hamaikagarren urtez. Apirilaren 15ean hasiko da, eta apirilaren 26an bukatuko da. Zazpi egun izango dira guztira: apirilak 15, 16, 17, 23, 24, 25 eta 26. Egun horietan 9:30etik 12:30era izango dira saioak. 2007 eta 2012. urte bitartean, biak barne, jaiotako umek parte hartu ahal izango dute kirol campusean. Interesatuak apirilaren 5a baino lehen eman beharko dute izena Olaizaga kiroldegian. Patronatuko bazkideek 44 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, aldiz, 49 euro.

## June Loidi Espainiako eskubaloia selekzioarekin

2021ean Espainian jokatu den Munduko Eskubaloia Txapelketa jokatzeko aukerak izan ditzaketen jokalariek gazteenekin lan egin nahi du Carlos Viver hautatzaileak, eta hamasei jokalariek deitu zituen Valladoliden egin zuten kontzentrazioan parte hartzerako. Viver hautatzaileak June Loidi elgoibartarra sartu zuen hautatuen artean, azken deialdietan egin duen moduan. Hotel Gran Bilbao-Prosetecnisa Zuazo Barakaldoko taldean jokatzeko deitua, Espainiako Ohorezko Mailan.





## Elgoibartik joandako atletek emaitza onak lortu dituzte pistako eta krosetako Gipuzkoako txapelketan

Pista estaliko gazte mailako Gipuzkoako Atletismo Txapelketa jokatu zuten otsailaren 16an Anoetako Belodromoan. Elgoibartik joandako atletek bost domina eskuratu zituzten: bi urre, zilar bat eta bi brontze. Era berean, otsailaren 17an Legazpin jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketan ere emaitza onak lortu zituzten Mintxetako ordezkariak, eta zilarrezko domina bat lortu zuten taldekako lehian. Pistan lortutako dominei dagokionez, Nerea Sasiainek eta Iñaki Beasainek lortu zituzten urrezko dominak. Sasiainek 200 metroko lasterketa irabazi zuen, denboraldiko markarik onena eginda (25:72). Beasainek, berriz, 800 metroko lasterketa irabazi zuen juniorretan, 2:02.79ko denbora eginda. Aner Gallastegi mendaroarra 11. postuan sailkatu zen (2:20:24). Zakariae el Hachmi elgoibartarra ere 800 metroko lasterketan lehiatu zen, jubenil mailan baina. Distantzia horretako lasterketa bat korritzen zuen estreinako aldia izan arren, primeran moldatu zen eta hirugarren egin zuen (2:11:60). Andoni Oriok ere estreinakoz hartu zuen parte 400 metroko lasterketa



batean eta honek ere zilarrezko domina eskuratu zuen 59 segundo eta 26 ehuneko denbora eginda. 18 urtez azpikoetan lehiatu zen atleta debarra. Mintxetako hiru atletek hartu zuten parte luzera jautsian, neskak hirurak. Eider Iglesias mendaroarrak txapelketaren irabazlea izatea lortu zuen 20 urtez azpikoen kategorian, bost metro eta 21 zentimetroko jautsia eginda. Leire Etxabe soraluzearrak 6. postua lortu zuen 16 urtez azpikoetan (3,68 m.) eta Cris-

tina Marcos zazpigarren postuan sailkatu zen 18 urtez azpikoetan, 3,80 metroko jautsiari esker.

### Zilarra kros txapelketan

Mintxetako alebin nesken taldeak bigarren postua lortu zuen Legazpin, Alebin eta infantil mailako atletentzako Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketan. Sailkapenak eta argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)

## Sare sozialen inguruko ikastaroa jaso dute futbolari gaztetxoek

C.D. Elgoibarreko neska-mutilek, 2007an eta 2008an jaiotakoek, sare sozialak eta horien erabilpen zuzenaren inguruko ikastaroa jaso dute asteon. 80 neska-mutilek hartu zuten parte ikastaroan. "Sare sozialak behar moduan ez erabiltzeak izan ditzaketen arriskuez ohartarazi eta kontzientziatu nahi ditugu gure gaztetxoak eta guztiak behartu genituen parte hartzera, entrenamendu orduetan jaso baitzuten ikastaroa, eguaztenean eta eguenean", azaldu du klubeko presidente Jon Basurtok.



## Ikastolaren Pilota Eguna martxoaren 9an izango da

Elgoibar Ikastolak jakinarazi duenez, martxoaren 9an izango da aurtengo Pilota Eguna. Elgoibar Ikastolako 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek parte hartzen dute urtero ikastetxean antolatzen duten pilota txapelketan. Finalerako sailkatzen diren bikoteek Pilota Egunean jokatuko dituzte finalak, Kalegoen plazako frontoian, 10:30etik aurrera (euria egingo balu ikastolan).

**LANA.....**

**Eskeraerak**

Orduka lan egiteko prest nago. **☎** 693 673 904

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **☎** 632 796 081

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezko titulazioa daukat. **☎** 632 729 261

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean gauak ere pasatuko nituzke. **☎** 631 822 545

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, arratsalde. **☎** 689 003 537

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. **☎** 632 470 388

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia. **☎** 602 369 680

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **☎** 631 064 889

Eraikuntzan edo baserri lanetan egingo nuke lan. Esperientzia daukat. **☎** 602 405 707

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. **☎** 602 405 039

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Garbiketa lanetarako ere prest nago. **☎** 631 987 624

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Erreferentziak ditut. **☎** 631 959 435

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. **☎** 632 251 861

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentziak ditut. **☎** 632 501 003

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. **☎** 632 786 952

Lan bila nabil. Orduka edo etxeko langile moduan aritzeko prest nago. **☎** 632 737 903

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. **☎** 644 602 818

Lan bila nabil. Baserri lanetan, ostalaritzan eta garbiketa lanetan esperientzia handia. Erreferentzia onak ditut. **☎** 631 680 819

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut. **☎** 633 150 376

Adinekoak zainduko nituzke. Formazio eta esperientzia ditut. Titulu sozio-sanitarioa daukat. **☎** 671 989 434

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat ostalaritzan eta etxeko lanetan. **☎** 612 223 298

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. **☎** 605 598 999

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. **☎** 675 965 130

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Esperientzia handia. **☎** 612 490 124

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka ere bai. **☎** 626 407 923

Zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. **☎** 660511781 / 943 74 23 30

**Eskaintza**  
Debako taberna batean lan egiteko zerbitzari euskalduna behar da. **☎** 606 727 876

Neska gazte eta euskalduna behar dugu, goizetan 7 urteko umea zaintzeko. (7:30-9:00). **☎** 646 571 984

**ETXE BIZITZAK.....**  
Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **☎** 677 259 560

**BESTELAKOAK.....**  
Haritz dantza taldekoek jantziak uzten dituzte, baina gero askok ez dizkiete bueltatzen. Norbaitek etxean dantza taldeko erropak baditu, merkatu plazako lokalera eramateko eskatu dute. **☎** 686 633 178

Txabola bat, lursail txiki batekin alokatu edo erosiko nuke **☎** 646 225 465

Paparreko orratz bat galdu dut, Plaza Txikitik Maalara bitartean. **☎** 943 531 648 / 669 916 148

Lursail bat erosiko nuke mendian. **☎** 607 143 616

**GARAJEAK.....**  
Garaje itxia alokairuan San Roke 16-18an. Anbulatorioko igogailuaren ondoan. **☎** 655 720 570

Garajea salgai erdigunean. Auto txiki batentzat edo motorrentzat aproposa. **☎** 658 741 463


**II. URTEURRENA**

**Txomin Ondarre Amuategui**

2017ko otsailaren 27an hil zen, 87 urte zituela.

**Bi urte pasa dira, baina zure irribarra eta ongi nahia ez dugu inoiz ahaztuko. Askok maite zaitugu.**

Etxekoak



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Alkartasunaren Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Jakin nahi nuke komunitateko lehendakariak langile bat kaleratu ahal duen, etxejabeen batzarrean horrelakorik onartu ez bada.**

Langile bat kontratatu edo kaleratzea etxejabeen batzarrean eskuduntza da. Legeak organo honi ematen dio komunitatearen interes orokorreko gaiak ezagutu eta erabakitze funtzioa, zerbitzu komun baten aldeko neurri egokienak hartzeko. Ez badago langile hori kaleratzeko akordioarik, presidentea komunitatearen ordezkari papera hartzen ari da, aurrez baimendu ez dioten ekintza bat aurrera eramateko. Honelako kasu mugatuak direnean, presidentek bere izenean erantzun behar du, komunitateak ez badu behintzat ekintza horren kontrako erabakirik hartzen. Komunitatearen eguneroko gestioan presidentek erabakiak hartu ditzake eta hartu behar izaten ditu sarri etxejabeen batzarrean arte itxaron gabe, baina gero erabaki horien berri eman beharko du zehatz mehatz urteko batzar nagusian, edo beste edozein batzarretan, baina presidentek ezin ditu etxejabeen batzarrean konpetentziak ordezkatu.

**GOMENDIOA:** Gertaera larri edo presazkoa ez bada behintzat, hobe izaten da ohiko edo ez ohiko etxejabeen batzarra deitzea gaia landu eta erabakiak hartzeko, presidentek bere kabuz erabaki eta gero etxejabeen batzarri informazioa ematea baino.







Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, **Hodei!** Gure txapeldunak bihar 4 urte! Ondo pasa! Etzekoen, eta bereziki, Nahieren partetik.



Zorionak, **Ene-ritz,** bihar 9 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Naroa,** otsailaren 26an 9 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat familiako, eta bereziki, amaxo eta lbaireren partez.



Zorionak, **Irati!** Konturatu orduko bete duzu urtea. Ez galdu zure irribarra. Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Eirenen partez.



Zorionak, **Mikel!** Igandean primeran ospatuko dugu zure eguna. Muxuak familiako eta bereziki, Alex eta Luciaren partez.



Zorionak, **Ibai,** asteartean 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Jare, Aratz eta anaia Lierren partez.




Zorionak, **Noa!** Dagoeneko 8 urte! 8 belarri tirakada eta muxu erraldoi bat etzeko guztien partez.



Zorionak, **Gorka!** Ostegunean 10 urte! Behar bezala ospatuko dugu. Muxu asko familiako eta bereziki, Noaren partez. Askok maite zaitugu.



Zorionak, **Duna,** hilaren 26an 12 urte beteko dituzulako. Aittitta Jose eta amama Mari Carmenen partez, muxu bat.



Zorionak, **Ni-kole,** astelehenean 5 urte egin zenituelako. Etzekoen, eta bereziki, Enekoren partez. Muxu bat.



Zorionak, **bikote!** Azkar pasatu dira urteak! 12 eta 10 urte bete dituzue dagoeneko. Jarraitu horrela, mutilak. Patxo handi bat familiako, eta bereziki, Peruren partez.



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

IKASGO

ACADEMY

667 261 248

(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar

[akademialgoibar@gmail.com](mailto:akademialgoibar@gmail.com)



HONEY lastaira umeen garapen eta hazte prozesuan ezaugarri eta berezitasun guztiak kontuan hartzen duen bakarra da. 2 gune dituen lastaira izategatik desberdintze da:





1. gunea: 8 urtetik 8 urteko umeentzako egokia



2. gunea: 8 urtetik gorakoentzako egokitzen den gunea.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



40. urteurrena  
**UZURI**  
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar

Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

Otsaileko eskaintzaren  
**AZKEN ASTEA!**

2 x 1  
haurren  
kristaletan

\* Kontsultatu baldintzak




2019ko kanpaina berezia!

Uzuri Optikak 40 urte bete ditu. Hilean egindako erosketarekin sari baten zozketan sartuko zara. Parte hartu!

➤ Otsaileko zozketa:

Herschel motxila





## 22 BARIKAKUA

**21:30** Bideo foruma: *La vida soñada de los ángeles*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa.

## 23 ZAPATUA

**9:00** Hileko azken zapatuko feria. Aita Agirre plazan eta Kalebarren plazan.

**10:00** Sukaldaritza tailerra. 8 eta 12 urte bitarteko umeentzako, Maalako parkean.

## 26 MARTITZENA

**19:00** Bizikidetzako jardunaldiak: *Gazteria, memoria eta transmisioa*. Mahai-inguru egingo dute, Leire Ostiza Mugika eta Iker Usonekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 27 EGUAZTENA

**10:00** Erreminta Makinaren Museoaren 20. urteurreneko ekitaldia. Museoan bertan eta IMHn egingo dituzte ekitaldiak.

**19:00** *Erroma Euskal Herrian* hitzaldi zikloa: *Iruña-Veleia*. Juan Martin Elexpuruk eskainiko du hitzaldia, Kultur Etxean.

## 1 BARIKAKUA

**15:15** Euskal Inauteria. Elgoibar Ikastolako ikasleek kalejira egingo dute, Ikastolatik Kalegoen plazara arte. Euria egiten badu Ikastolan bertan egingo dute jaialdia.

### ANGERU GUARDAKO JAIK

#### 1 BAIXAKUA

**11:00** Meza, Aingeru Guardako kaperan.

#### 3 DOMEKA

**11:30** Meza, Aingeru Guardako kaperan.

**Ondoren**, trikitilari eta bertsolarien emanaldia. Trikitilariak: Asier Landa, Leandro Esnaola eta Igor Rey. Bertsolariak: Maider Arregi eta Aitor Urbietak.

**Segidan**, herri kirolen erakustaldia.

### Zinea (Herriko Antzokian)



#### 'El reino'

22 barixakua: 21:30  
23 zapatua: 19:00 / 22:15  
24 domeka: 19:00  
25 astelehena: 21:30



#### 'Bumblebee'

25 domeka: 16:30



#### 'Cold war' (Ongarri)

28 eguena: 21:30

### Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK	Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
22 BARIKAKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	1 BARIKAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gaez: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498



II. URTEURRENA

*Iker Jausoro Murgiondo*  
eta  
*Joseba Zinkunegi Garmendia*

2017-02-26



*Zenbat egiteko  
eta zenbat bizitzeko,  
zuen irribarrea eta  
maitasuna gure  
bihotzetan betirako.*

MAITE ZAITUZTEGU  
Etxekoak eta lagunak



V. URTEURRENA


*Bittor Alberdi Elorza*

*"Patxillo"*

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

*Haizeak bezala  
esku artetik ihes egin duzu,  
baina hor zaude  
gure bihotzean, ez ahaztu.  
Urteak aurrera, zauria ixten,  
baina zu beti hemen  
gure bidea indartzen.*

Etxekoak



I. URTEURRENA

*Mikel Gorostiza Etxaniz*

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
zapatuan, otsailaren 23an, 19:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

*Beti izango zaitugu gure bihotzetan.*

Etxekoak





1996

Aste honetako erretratu zaharra Edurne Bilbao bidali digu, IMHko artxibotik. 1996ko urriaren 6an ateratako argazkia da, hain zuzen ere Ikastolen aldeko Kilometroak jaia Elgoibarren egin zen egunean. Kilometroetako ibilbidea IMHtik pasatzen zenez, Erreminta Makinaren Museoa izango zena ireki egin zuten, jendeari erakusteko. Museoa oraindik eraikitzeko zegoen, baina lokala prestatzen hasita zeuden ordurako. 1997an hasi zituzten museoko lanak, eta 1998an inauguratu zuten. 20. urteurrena ospatuko dute aurten.

**Atzean, ezkerretik eskumara:** Joxean Egaña IMHko zuzendari izandakoa, Zigor Esnaola, Miguel Lopez de Gereñu (†) eta Aitor Goikoetxea. **Aurrean:** Pedro Ortuondo Museoko zuzendaria izan dena oraintsu arte, Fernando Montero, Iosune Berasategi, Sonia Sanchez, Eneko Agirre, Ane San Martin eta Leire Alberdi.



## *Arantza Berasaluze San Martin*

2019ko otsailaren 8an hil zen, 59 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.**





IV. URTEURRENA

*Ander  
Modamio Alvarez*

2015eko urtarrilaren 30an hil zen,  
49 urte zituela



*Gurutze  
Modamio Alvarez*

2015eko otsailaren 20an hil zen,  
54 urte zituela



*Nire ondotik joan zarete,  
baina betiko izango zarete  
nire bihotzean.*

Ama

IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 23an,  
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



# INAUTERIAK 2019

**MARTXOAK 2, ZAPATUA**

18:00-19:30 ATXUTXIKARAOKEA Maalako parkean

19:45-20:30 MOZORRO DESFILEA plazaraino Mauxitxa txarangarekin

00:30 FAN&GO erromeria Maalan

**MARTXOAK 5, MARTITZENA**

16:45 MOZORROEN ELKARTZEA Kalegoen plazan.

17:00 KANTU KOLORE HAUR BERBENA Kalegoen plazan. Euria bada, Maalan.

18:15 MAUXITXA TXARANGAREN kalejira

18:00-21:00 EGUREN ORKESTRAREN DANTZALDIA  
eta mozorroen lehiaketa, Jubilatuen Biltokian.

